

LEGELARI GAZTEENTZAKO "ADRIÁN CELAYA" SARIAREN LAUGARREN EDIZIOA
ACADEMIA VASCA DE DERECHO - ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA
SARIAREN OINARRIAK

Legelari gazteen artean, Euskal Zuzenbidearen ikerketa eta zabalkundea sustatzeko helburuarekin, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiak legelari gazteentzako "Adrián Celaya" Sariaren hirugarren ediziorako deialdia egiten du, honako oinarri hauen arabera:

1. Lehiaketa 1994. urteko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edozein legelariri irekita dago, zuzenbidean lizentziadun edo gradudunak direnei, bai eta Zuzenbidean lizentziaduna izateko edota Zuzenbidean graduduna izateko azken ikasturtean daudenei ere.
2. Lanak izango dira euskal zuzenbide pribatu zein publikoaren arloko edozein azterketari buruzkoak; jatorrizkoak eta argitaragabekoak eta beste lehiaketaren batean inoiz aurkeztu gabeak.
3. Sariak lau modalitatetan banatuko dira, accesit-ik gabe: bi euskal zuzenbide pribatuaren arloan, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, eta beste bi euskal zuzenbide publikoaren arloan, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.
4. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz idatziko dira, DIN-A4 formatuan, 12 puntuko Times New Roman letra-mota erabiliko da, bat eta erdiko lerro-tartea utzita, alderdi batetik idatzita; lanen luzera gutxienez 30 orrialde eta gehienez 50 orrialdekoa izango da. Word formatuko euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira. Halaber, lan bera ezin izango da bi hizkuntzetan aurkeztu.
5. Onarpen-epea gehienez ere, 2019. urteko uztailaren 15eko eguerdiko hamabi orduak izango da, eta aurkezteko tokia, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiak Bilboko Recalde zumarkalearen 8. zenbakian, 1. solairuan, eskuinera duen egoitza. Lanak posta elektronikokoaren bidez ere bidal daitezke, betiere aipatu epean, helbide elektronikoa honetara: secretaria@avd-zea.com.
6. Lanaren lehen orrialdean honako datu hauek adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak; jaioteguna, naziotasuna, bizilekua, helbidea, telefonoa (faxes edo helbide elektronikoa, hala denean) eta Zuzenbidean lizentziaduna izateko edo gradu ikasketen azken ikasturtea zein unibertsitatean egin duen edota egiten ari den eta unibertsitate hori, eta lana zein modalitaterako aurkeztuko duen.
7. Epaimahaia gehienez bost kidek osatuko dute eta Akademiaren Zuzendaritza Batzak izendatuko du. Epaimahai horren erabakiak irmoak izango dira eta helegiterik gabekoak.
8. Saria hutsik gera daiteke, kasuan kasuan.
9. Erabakia, lehiaketa itxi eta hurrengo lau hilabeteko epean hartuko da, gehienez. Epaimahaiaren erabakia zuzenean jakinaraziko zaio saridunari eta Akademiaren web orrian ere argitaratuko da.

10. *Sariaren diru-kopurua 500 eurokoa izango da, modalitate eta hizkuntza bakoitzari dagokionez. Sariak Akademiak egingo duen egintza esanguratsuan emango dira.*
11. *Akademiak eskubidea izango du saritutako lana argitaratzeko, gehienez bi urteko epean, erabakia hartu denetik zenbatzen hasita; ez du, aldiz, konpromisorik hartzen, saririk jaso ez duten lanak itzultzeko, baina egileek eurek zuzenean, edota eurak baimendutako beste pertsonen batzuen bitartez, jaso ahal izango dituzte lanok, erabakia jakinarazi eta hurrengo sei hilabeteko epean.*
12. *Akademiaren Zuzendaritza Batzak hala erabakita, edozein unetan aldatu ahal izango dira, modu arrazoituan, sari honen oinarriak. Aldaketaren ondoriozko oinarriak Akademiaren web orrian argitaratuko dira eta indarrean egongo dira ordurako aurkeztu diren egile eta lan guztientzat, bai eta data horretatik aurrera aurkez daitezkeenentzat ere.*